

Juan San Martinen lana Foru Aldundiaren eskutara igaro da

**ONDAREAK 10.000
LIBURU, 5.000 IRUDI ETA
3.000 TXOSTEN DITU**

**Ikerlari eibartarraren
famiaren ekimenez
artxibo guztiak herritarren
eskuragarri egongo dira**

TERESA SALA

DONOSTIA. Gipuzkoako Foru Aldundiak Juan San Martinen agiri eta ondare funtsa erosi berri du. Fondoak 10.000 liburuz, 5.000 argazkiz eta 3.000 txostenez hornituta dago.

Lehenengo arartekoa izandakoa-ren seme Oier San Martinek atzo Foru Aldundian izandako aurkezpenean azaldu zuenez, "anaia, ama eta hirurok jakin bagenekien aitarren lan guztia etxetik atera beharra zegoela, eta Foru Aldundira zuzentzea iruditu zitzaigun egokiena". Ildo honetan, exijitu dituzten baldintzen inguruan mintzatu zen: "Batetik, lanaren jarraipena ahalbidez eskatu diogu Aldundiari. Eta, bestetik, lanen eskubide guztiak erakundearen esku utzi ditugu, egoki ikusten duenean nahi duena eta nahi duen moduan argitaratu dezan".

IZAERA POLIFAZETIKOA Gipuzkoako ahalzun nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik "euskal kulturaren ekintzaile *todoterreno*" gisa deskribatu zuen Juan San Martin, eta baita bere lanen eskuratzeko poztasuna adierazi ere. "Guretzat oso pozgarria da bere bizitzako lanaren fruitua herritarren eskura jartzeko aukera izatea". Izan ere, eta Txabarrik berak esandakoaren arabera, "Euskal Herrian dauden kultura artxibo partikularren artean baliotsuena da eskuratu berri duguna, euskal kulturaren adar guztiak ukitzen dituelako". Foru aldundiak eskuratu duen unetik, Juan San Martinen fondoak publikoa izango da eta Koldo Mitxe-



Oier San Martin, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Mari Paz Ibeas. FOTO: IKER AZURMENDI

lena Kulturunean izango dute herritarrek bertako artxiboak kontsultatzeko parada. Historia, etnografia, artea, literatura, mendizaleztasuna edo espeleologia dira, beste batzuen artean, San Martinek bere bizitzan zehar jorratu zituen diziplinak. Iragan maiatzean Hondarribian zendutako ikerlari eibartarraren izaera polifazetikoaren erakusgarri garbienak bere lanak izanik, hauen mostra txiki bat erakutsi nahi izan zuten atzokoan San Martinen alargun Mari Paz Ibeasek eta bere seme Unai eta Oierrek. Hala, lau zabalabest dispositiba erakutsi zituzten. Besteak beste, 1960 urteko udan Jose Migel Barandiaranekin Santimamiñeko kobetan egindako ikerketaren irudi bat.

ARGITALPEN BITXIAK Juan San Martinen liburutegiak 10.000 ale inguru ditu. Hauen artean, historia nahiz euskal gaiet buruzko ale

**Koldo Mitxelena
Kulturunean gordeko
da San Martinen
fondoak, herritarrek
kontsulta dezaten**

**Fondoak 50-60ko
hamarkadan
zabalkunde motza izan
zuten argitalpen
bitxiak biltzen ditu**

bitxiak aurki daitezke. Aipagarria da, adibidez, 1916an Tolosan argitaratutako Aita Kardaberazek *Jesusen esku liburua* edo 1698. urteko *El apóstol de las indias, nuevas gentes, San Francisco Xavier de la Compañía de Jesús*. Hauetaz gain, fondoak 50-60ko hamarkadan zabalkunde motza izan zuten argitalpen bitxiak biltzen ditu. Euskal poesiaren berritzailetzat eta lirika berriaren sortzailetzat hartu izan da San Martin. Besteak beste, azpimarragarriak dira *Otsalar* ezizenarekin sinatzen zituen poesia liburuen jatorrizkoak, eta baita 60ko hamarkadako beste poeta batzuen jatorrizkoak ere. Eibartarraren kirol zaletasuna zela eta, espeleologia eta mendizaleztasunaren inguruko dokumentuak ere badira. Eta, hauetaz gain, 1959tik 1980ra arte bildutako argazkiak eta ahozko literaturaren lekukotasuna betetzen duen audio artxibo bat ere bada.